



## **CONCLUSIONES A PROPÓSITO DE LA MESA REDONDA SOBRE SALUD MENTAL EN LAS UNIVERSIDADES PÚBLICAS**

Este documento tiene un pretendido enfoque esquemático, con el fin de sistematizar lo mejor posible el debate que tuvo lugar en el seno de la II Asamblea General Ordinaria del Consejo de Estudiantes de las Universidades del Grupo 9 (CE-G9). Consideramos oportuno hacerlo así para facilitar el desarrollo de objetivos marcados a corto, medio o largo plazo en el seno de las universidades cuyos consejos lo conforman. El debate giró en torno a la necesidad de que las universidades cuenten con servicios de atención psicológica y psicopedagógica. También fue relevante el comentario en torno a la formación de la comunidad universitaria en estas cuestiones, así como otras iniciativas de diversa índole, con el fin de llegar a una universidad respetuosa y atenta con sus diferentes miembros.

- Considerar necesaria la colaboración estrecha entre la universidad y los servicios comunitarios de salud mental para garantizar una atención integral a los estudiantes y al personal. Existe una profunda preocupación por el bienestar mental dentro del ámbito universitario y se destaca la necesidad de acciones concretas para abordar esta cuestión. Se reconoce que el apoyo inicial y de alerta ofrecido por las instituciones universitarias no puede sustituir al respaldo público en materia de salud mental.
- Considerar la propuesta de establecer estrategias preventivas dentro de la universidad, como el Servicio de Psicología Aplicada (UM SEPA). Es necesario un enfoque proactivo para abordar los desafíos de salud mental.
- Solicitar que los estos servicios sean administrados -o coadministrados- por el vicerrectorado con competencias en materia de estudiantes, especialmente para reevaluar la distribución y oferta de estos recursos dentro del contexto universitario.
- Sugerir ofrecer formación al personal docente en la identificación y manejo de problemas de salud mental. Se destaca el dilema de hacer esta formación obligatoria o voluntaria, considerando que imponerla podría generar resistencia. Aquí radica la importancia de encontrar un equilibrio entre la sensibilización y la participación voluntaria para garantizar una respuesta efectiva a las necesidades de salud mental. El impacto de la pandemia en la salud mental se presenta como un catalizador urgente para la acción. El aumento de problemas como el suicidio destaca la necesidad de una respuesta rápida y efectiva. Esto subraya la importancia de mejorar los servicios públicos



de salud y establecer una estructura sólida de detección y derivación en la universidad para garantizar que aquellos que necesiten ayuda reciban la atención adecuada. Además, se plantea la importancia de que el profesorado tenga empatía y formación en salud mental para poder apoyar adecuadamente a los estudiantes en momentos de dificultad.

- Proponer crear espacios de liberación de estrés, jornadas académicas más flexibles y espacios sociales en el campus, que muestran un enfoque integral para promover el bienestar en la comunidad universitaria.
- Repensar el papel de la universidad como una institución que no solo transmite conocimiento académico, sino que también debe preocuparse por el bienestar emocional y mental de sus miembros. Esto implica un cambio de paradigma hacia una cultura universitaria que priorice la salud mental y promueva un ambiente de apoyo y cuidado mutuo.



## **UNIBERTSITATE PUBLIKOETAKO OSASUN MENTALARI BURUZKO** **MAHAI-INGURUAREN ONDORIOAK**

Dokumentu honek ikuspegi eskematikoa izan nahi du, ahalik eta hobekien sistematizatzearen G9 Taldeko Unibertsitateetako Ikasleen Kontseiluaren II. Ohiko Batzar Nagusian izandako eztabaida. Egokia iruditzen zaigu horrela egitea unibertsitateetako kontseiluetan epe labur, ertain edo luzerako ezarritako helburuak errazago gara daitezten. Eztabaidaren muina izan zen beharrezkoa dela unibertsitateek arreta psikologikoko eta psikopedagogikoko zerbitzuak izatea. Era berean, iruzkin aipagarri batek hizpidera ekarri zuen unibertsitateko komunitatearen prestakuntza beharra, bai gai horiei buruzkoa, baita bestelakoei buruzkoa ere, unibertsitateak errespetuz joka dezan eta arreta egokia eman diezaien kide desberdinei.

- Beharrezkoa da unibertsitateak eta osasun mentaleko zerbitzu komunitarioek lankidetzat estua izatea, ikasleei eta lankideei arreta integrala ziurtatzearen. Kezka handia dago unibertsitatearen esparruko ongizate mentalari buruz, eta auzi hori jorratzeko ekintza konkrituak egin beharra azpimarratu da. Aitortu da unibertsitateek eskaintzen duten hasierako eta alertako laguntza ezin dela izan osasun mentalaren arloko baliabide publikoen ordezkia.
- Kontuan hartzea unibertsitatearen barrenean prebentziozko estrategiak ezartzeko proposamena, hala nola Psikologia Aplikatuako Zerbitzua aplikatzeko (UM SEPA). Osasun mentalari loturiko desfioei heltzeko beharrezkoa da ikuspegi proaktiboa izatea.
- Eskatzea zerbitzuak ikasle gaitan eskumenak dituzten errektoreordetzek administra ditzatela –bakarrik edo lankidetzan–, bereziki unibertsitateko testuinguruaren barrenean baliabide horien banaketa eta eskaintza berriz ebaluatzeko.
- Proposatzea irakasleei prestakuntza ematea osasun mentaleko problemak identifikatzeko eta kudeatzeko. Planteatu da ea prestakuntza horrek derrigorrezkoa ala borondatezkoa izan behar ote duen, batzuen ustez derrigorrezkoa izateak kontrako jarrera sortzen ahal baitu. Hor argi ikusten da zein garrantzitsua den oreka bilatzea sentsibilizazioaren eta borondatezko parte-hartzearen artean osasun mentaleko beharrei modu efektiboan erantzuten zaiela ziurtatzeko. Pandemiak osasun mentalean izan duen eragina katalizatzailea izan da arlo horri urgentziaz ekiteko. Ugaritu egin dira problema batzuk, hala nola suizidioa; horrek erantzun azkar eta efektiboa ematearen beharra erakusten du, eta, halaber, azpimarratzen du zein garrantzitsua den



osasuneko zerbitzu publikoak hobetzea eta unibertsitatean detekzioko eta pazienteak bideratzeko egitura solido bat ezartzea, laguntza behar duten horiek behar bezalako arreta jasotzen dutela ziurtatzeko. Gainera, garrantzi handikotzat jo da irakasleek, zailtasunak dituzten ikasleei laguntzeko, enpatia eta osasun mentaleko prestakuntza izatea.

- Proposatzea estresa askatzeko guneak eta jardunaldi akademiko malguagoak sortzea, bai eta campusean ingurune sozialak ere, ikuspegi integrala dutenak unibertsitateko komunitatearen ongizatea sustatzeko.
- Unibertsitatearen zeregina birpentsatzea, ez dadin izan ezagutza akademikoa transmititzen duen erakundea bakarrik, baizik eta baita bere kideen ongizate emozionalaz eta mentalaz arduratzen den erakunde bat ere. Horrek paradigma aldaketa dakar, unibertsitateko kultura aldatzen baitu, hain justu, unibertsitatea osasun mentala lehenesten duen eta elkarri laguntzeko eta elkar zaintzeko giroa sustatzen duen erakunde bihurtzeko.